

Joxe Elorrieta, ELAko idazkari nagusi ohia:

# “Zergatik tematzen da Sortu EAJrekiko akordioan, honek ez badu nahi?”

Munduko zortzi pertsona aberatsenek 3.600 milioi pertsona txiroenek beste dutela jakitera eman berri du Oxfamek. Errealitate horri bete-betean erantzuten dion liburua argitaratu du Joxe Elorrietak (Loiu, Bizkaia, 1951). Emango du zeresanik. Besteak beste burujabetza soziala akuilatuko duen ELAren eta LABen jarduera batasunaren itzulera grinaz aldarrikatzen duelako: “Ezinbestekoa da”. Egoerari aurre egiteko errezeta argia bezain tinkoa da: aliantzak eta borroka.



**Xabier Letona**

@xletona

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

## Zurea zergatik da korrontearen aurkako begirada sindikala?

Bat, neoliberalismoaren aurkakoa delako. Bi, Mendebaldeko gehiengo sindikalak gaur egun duen ikuspegi sindikalaren aurkakoa delako. Eta hiru, Euskal Herrian badagoelako bestelako gehiengo sindikal bat, ELAk eta LABek osatzen dutena, eta hauen jarduera sindikala bilaka daitekeelako borroka eredu berri baten ardatz eta akuilu, egungo indar harremanak aldatzeko gai izan daitekeena.

## Azpituluan hiru kontzeptu aipatzen dituzu: klasea, lurraldea eta aliantza berririk.

Hiru esparru horiek funtsezkoak dira borroka eredu berria finkatzeko. Bateatik, euskal sindikalismo horrek klase ikuspegian oinarritzen du bere eguneroko jarduera. Institutuzioen legitimitatea eta babesa baino, langileen hurbiltasuna

na eta legitimitatea bilatu behar da, eta hauek hori egiten dute.

Azpimarratu nahi dut baita ere lurraldea, azken urteetan ELAren eta LABen sindikalismoak hazten jarraitzen duela, baita Nafarroan ere; lurralde honetan gertatzen ari dena oso interesgarria da, UGT -%25 orain eta %36 1993an- eta CCOO atzera doaz eta, ostera, ELA eta LAB aurrera. Zer falta zaigu? Aliantzak, hori da ez duguna. 90eko hamarkadan egin zen bi sindikatuen arteko saio bat, oso erreferentziala eta indartsua, baina bertan behera gelditu zen. Hori da liburuaren helburua: diren zailtasun guztiak kontuan hartuta, gehiengo sindikal hori berriz abiaraztea.

## Euskal Herrian, politikaren eremutik begiratuta, neoliberalismoa sostengatzen duten alderdiek samur irabazten dute. Begira EAJ.

Neoliberalak pentsatzen dute erreali-

tatea haiena dela eta ez dagoela beste errealtaterik. [Margaret] Thatcherrek argi esan zuen: “Ez dago alternatibarik”, eta espazio batzuetan lortu dute ideia hori finkatzea, baita sindikalismo nagusian ere. Behin galdetu zioten ea zein zen bere lorpenik handiena eta argi esan zuen: “Sozialdemokraziak gure programa onartu duela”.

Nirekin ekonomia ikasi zuen pertsona ongi kokatu batek zera esan berri dit: “Baina Joxe, ez duzu ikusten errealitatea non dagoen? Ez duzu ikusten zuek mendira joan zaretela?”. Hori irabazlearen pentsamendua da eta, beraz, zera erantzun nion: “Nirea galtzailearen ikuspuntua da, baina oraindik badut esperantza”.

EAJren egoera ona ez dator bakarrik bere emaitzatik, egoera pribilegiatua du bai PSOEk eta bai Sortuk berarekin akordioa egin nahi dutelako. Sortuk, esaterako, Arabako Diputazioko aurrekontuak onartu ditu, hauek ez dutenean aldake-



tarako ikuspegirik. Nafarroan antzera: zergatik EH Bilduk ez du esaten ez direla onak, baina hala ere onartu egingo dituela? Hori pedagogikoagoa litzateke. Hala ere, EH Bilduk eta Ahal Duguk EAJk baino parlamentario gehiago dituzte.

#### **Langileen eskubideetan, eta denboran kokatzeko, noraino egin da atzera?**

Grafikoki esateko, kapitalismoaren fase zakarrena heldu gara. 1901etik 1909ra AEBetako lehendakari izan zen Theodore Rooseveltek zera esaten zuen orduko diru pilatze eta aberatsen botere ekonomikoaz: “Baroi madarika-tuak!”. Gaur egun ezinezkoa da irudikatzeari sistemako politikari bat halakoak esanez. Tomas Piketty ekonomilariak desberdintasuna aztertu du bere liburua ospetsuan [Le Capital au XXIe siècle] eta bere ustez XX. mendeko 40ko hamarkadara itzuli gara desberdintasunari dagokionez.

#### **Lana eta kapitalaren arteko borroka horretan, orain zein fasetan gaude?**

Orain sindikalismoa galduta dago. Ikusten du ezin dituela lortu garai bateko helburuak bere ohiko tresnekin, negoziatio kolektiboan eta abarrekin, baina ez du bere jokaera aldatzen, eta harra-patua dago. Alemanek eta britainiarrek, adibidez, baliabide ekonomiko ugari dituzte eta zerbait egiten dute. UGTk eta CCOOk ez dute ezer, subjektu aldarrikatzaile gisa hilda daude.

#### **ELAren eta LABen arteko batasun sindikala proposatzen duzu soberanismo soziala bultzatzeko. Zergatik orain?**

Neoliberalismoaren oldarraldia inoiz baino gogorragoa delako azken urte hauetan. Adibidez, aurreko legealdian EAJk akordio bat egin zuen patronala eta gutxiengo sindikalararekin gehiengo sindikala baztertzeko. Iragan udako kontua da hori. Urkullu lehendakariak dio sindi-

» “ELAren eta LABen arteko konbergentziarako oztopo nagusia honakoa da: lehentasun instituzionala baztertu behar da agenda politikotik, autonomia sindikala eta soziala maila guztietan onartuz”

» “Neoliberalismoa nagusi da, bale, bai munduan eta bai hemen, baina ez da garaitezina”



katuek ez dutela legitimitaterik espazio politikoa eta soziala aldarrikatzeko, lan esparrura mugatu behar dutela. Inoiz ez da halakorik gertatu. Hori sasi sindikalismoa da. Sindikalismoaren historian ardatza izan da baldintza politiko eta sozialak aldatzea. Zer gertatzen da? Konturatu dira hauteskunde bidez ez dela posible eredu sindikala aldatzea, hemen nagusi ELA eta LAB direlako. Orduan zer? Bide horretatik ezin bada, beste batzuk erabiltzen dituztela arauak aldatu eta sindikatu nagusiak ikusgarri izan ez daitezten.

Azken urteetan bereziki, EAJ ahalegin berezia egiten ari da enpresariengana hurbiltzeko, bere marka-irudia da hori egitea. EAJren irudi neoliberal batez ere zerga politikan ikusten da, ez da ahaztu behar Bruselak zigortu egin zuela “opor fiskalen” auzian. Europar Batasuneko batez bestekoa baino zazpi puntu beherago dago EAEko presio fiskala: hori 6.000 milioi euro da (Nafarroan 1.600 milioi lirateke). Aurrekontuetan ere argi ikusten da. Nola kontrolatzen da defizita? Osasun eta hezkuntza sailetan -handienetan- murrizketak eginez.

**Hortik abiatuta, EAJren desertzio nazionala aipatzera ere iristen zara liburuan.**

EAJ logika neoestatutista baten barruan dago. Euren helburu nagusiak hauek dira: eskumen gehiago jasotzea orain baino segurtasun juridiko handiagoa-

» “Hori da liburuaren helburua: diren zailtasun guztiak kontuan hartuta, ELA eta LABen gehiengo sindikala berriz abiaraztea”

---

“Lehen fase honetan burujabetzarako indar metaketa EAJ gabe egin behar da; beste fase batzuk ere beharko dira eta, hor bai, abertzale guztien beharra izango da”

---

» “Pozgarria da Nafarroako Gobernuaren balorazioa egiterakoan ELAk eta LABek erakutsi duten posizio kritiko eta bateratua”

---

rekin, hori bai, beti Madrilek finkatzen dituen mugen barruan. Batzuek nahi dute EAJ Maltzagara joatea, baina EAJk bere aliantzak estatuko indar sistemikoekin egiten ditu, PSOE eta PPrekin, eta arlo sindikalean, posible bada, UGT eta CCOOekin. Orduan, EAJk Maltzagara joan nahi ez badu, zergatik tematzen da Sortu EAJrekin akordio historiko bat lortu beharrekin? Ez dago baldintzarik horretarako.

**Liburuan diozu Maltzagaren bideak ez duela balio. Zergatik?**

EAJk ez duelako hara joan nahi eta. Badakigu prozesu nazionalak behetik hasita egin behar direla, gizartea kontuan hartuta, baina ezin da prozesu nazionalari buruz hitz egin neoliberalismoa aztertu gabe: neoliberalismoa eztabaida nazionalaren zentroan dago. Aztertu ondoren zer egin? Hori beste eztabaida bat da, baina egon hor dago eta diagnostikoan egon behar du. Planteamendu soberanista batzuk aipatu ere ez dute egiten neoliberalismoa: behetik hasi behar dela, denen artean, borondate onarekin... Orduan zer, errealitate hori ezabatu egiten da eta listo? Hori guztia ondo aztertu behar da, are gehiago kontuan hartuta errealitate sindikalak noraino lagun dezakeen indar harremanak aldatzen. Eta hor jartzen dugu guk ELAren eta LABen jarduera batasuna.



### Gure Esku Dago dinamikak, adibidez, neoliberalismoaren irakurketa hori bazterrean utzi nahi du?

Ez naiz kontu horretan sartuko. Behe mailan egiten den guztia ondo dago, etorkizunerako kapital metaketa da.

### Katalunian, aldiz, Maltzagaren ideian ari dira gauzatzen beren prozesu independentista.

Bai, hala da, baina ez dirudi Urkullu eta EAJ oso ados daudenik hangoarekin. Ezin da ukatu teorikoki Maltzagaren ideia aukera bat dela. Baina Katalunian zergatik gertatu da prozesu hau? Dударik gabe, Pujolen alderdia aldatu delako. Euskal Herrian errealitatea ez da hori. Horregatik esaten dut lehen fase honetan burujabetzarako indar metaketa EAJ gabe egin behar dela. Beste fase batzuk ere beharko dira eta, hor bai, abertzale guztien beharra izango da.

### Zein ardatzen inguruan egin beharko litzateke jarduera hori?

Bateratasun horren ardatzak hauek lirateke: eredu sindikal bateragarria; eguneroko jardunarekin koherentea izango den ezkerreko praktika; eta prozesu soberanista argi bat, bere alde nork egiten duen eta zein gai jorratuko dituen argi identifikatuko dituen. ELAk dagoeneko proposatu dio LABi hiru esparrutan eragina izango lukeen elkarlan egonkorra.

## ANTIKAPITALISTA, ABERTZALEA ETA INDEPENDENTEA



Juan Mari Arregi

Liburu dokumentatu, ausart eta polemikoarekin, Joxe Elorrietak bere burua eta bere sindikatua erretratatu ditu. Bide horretan, ELAko idazkari ohia konbergentzia sindikalaren aldekoa da. Elorrieta antikapitalista da, eta badaki zein den garaitu beharreko etsaia: neoliberalismoa. "Bere-berea duen gaiztakeria" aitortu behar diogu aurre egiteko, bere esanetan. Neoliberalismo hori ez da soilik patronalean ikusten, baita EAEko eta Nafarroako gobernuetan ere, eta haren kudeatzaileekin oso kritikoa da egilea: EAJrekin, murrizketa sozialak egin eta jarrera antisindikalista duelako; Geroa Bai, EH Bildu, Podemos eta I-Erekin, "ekonomikoki eta sozialki oso bide motza izan duen aldaketa" ekarri dutelako.

Abertzalea izaki, ELA eta LABen arteko konbergentzia proposatzen du Elorrietak, "prozesu independentista egituratzen lagunduko duen ardatz sendo bat" edukitzeke. Bere ustez, euskal gehiengo sindikalak ordezkari maila ia hegemonikoa duenez, izaera aldarrikatzaile eta nazio eraikuntzarekin konprometitu baliatu beharko luke: "Oportunitatea dauka 'erregimenaren' agorraldia agerian uzteko, neoliberalismoa eta estatutismo devaluatua bihurtu baititu bere

izateko eta egoteko arrazoi bakar". Tesuinguru horretan, deigarria da Maltzaga-ren kontra duen jarrera. Metafora horrek indar abertzaleek –euren epe luzerako helmuga, ideologia eta gizarte eredu zein diren kontuan eduki gabe– elkarrekin egin beharreko bideari jartzen dio azpimarra. Praktikan, dio sindikalistak, erakunde abertzale guztiek gutxieneko izendatzaile komuna bilatzea "antzua izateaz gain, arrisku handia ere badakar". Liburuaren hitzaurrean Elorrietak hauxe idatzi du: "EAJren zalantzarik gabeko aukera neoliberalak urrundu egiten du indar soberanisten arteko batura ekar dezakeen ezein agertoki".

Nazio subiranotasunarekin konprometiturik dagoen arren, egungo alderdiengandik independentea da ELAko idazkari ohia. LABekin egin beharreko konbergentziarentzat, honek Sorturekin eta ENAMekin dituen loturak zama handia direla uste du. Hala, bere iritzian ENAMek emandako bira –auto-

determinazioaren aldeko Lizarra-Garaziko baturatik, PSOREkin zeharkako kontsentitu bat izatera igaroz– "akats estrategikoa izan zen, ez baitzuen ibilbiderik nazio subiranotasunari begira". Orain subiranotasun hori ez omen da lehen-tasunezkoa ENAMen, bere aburuz.

Ika-mika eta eztabaida sortuko ditu liburuak, ezker zein eskuin, eta ea egin den, Elorrieta "begirada sindikal" eta politikoa korrontearen kontrakoa den seinale.



### Una mirada sindical contracorriente.

Clase, territorio y nuevas alianzas  
ICARIA 2017

Bat, esparru sindikala: negoziazio kolektiboan erantzun eraginkorra izango dena diseinatu behar da, izan diren lan erreformei –bereziki 2012koari– erantzun egokia emateko. Bi, esparru sozia-

la: neoliberalismoaren aurkako proposamenak eta mobilizazioak prestatzeko. Hiru, esparru politikoa: gizarte ereduaren inguruan egituratuko den proiektu soberanista murrizten joateko.

**Zure ustez zergatik ez da gauzatzen ELA-LAB jarduera batasuna?**

Bi arazo daude. Sindikatu bakoitzak bere kultura eta moldeak ditu, bestela sindikatu bakarra izango ginateke, eta ez da hala. Baina konbergentziarako oztopo nagusia honakoa da: lehentasun instituzionala baztertu behar da agenda politikotik, autonomia sindikala eta soziala maila guztietan onartuz. Gramscik-eta argi diote eta ni ados nago: bi fronteetan borrokatu behar da, sozialean eta instituzionalean, eta borroka hori dialektikoa da. Zer esan nahi du horrek? Hainbat unetan kontraesanak sortuko direla bi fronteetan artean, eta hori kudeatu egin behar dela. Kontua da ez egotea bata bestearen menpe.

**Une honetan zuk ez duzu Ezker Abertzalea –zuk ENAM deitzen duzun hori– aukera horretan ikusten.**

Bere antolaketa moldea aldatzen ez badu ez, hor baitaude Sortu, LAB eta Ernai, eta agirietan argi utzi dutelako estrategia eta lidergo politikoa Sortuk eramango duela. Horrez gain, azken hauteskundeetan ikusi dugu EH Bilduk EAJrekin akordioetara iristeko egin duen ahalegina. Bestetik, pozgarria da Nafarroako Gobernuaren balorazioa egiterakoan ELAk eta LABek erakutsi duten posizio kritiko eta bateratua.

**Hitz egin duzue LABekin kontu hauei buruz?**

Ez da nire kontua horretaz hitz egitea, baina nik oso aspaldi esan nuen: bi erakunde, ELA eta LAB, eta estrategia bakarra. Gure garaian ez genuen lortu.

**Liburuan kritiko ageri zara sindikalismo klasikoak generoa, ingurumena eta multikulturalismoa jorratu dituen moduz. Zein leku dute gizarte mugimenduek burujabetza sozialaren bide horretan?**

Generoa, ingurumena, multikulturalismoa edo gainerako alorrak jorratzen dituzten gizarte mugimenduekiko aliantzak ondo jostea ezinbestekoa da. Edozein modutan, borroka da aliantza horiek josteko biderik eraginkorrena. Borroka deslegitimatzeko neoliberalismoak “antisistema” kontzeptua erabiltzen du gero eta gehiago: bada bai, sistema honen aurkakoak gara eta indar harremanak aldatu nahi ditugu.



» “EAJren egoera ona ez dator bakarrik bere emaitzatik, egoera pribilegiatua du bai PSOEk eta bai Sortuk berarekin akordioa egin nahi dutelako”

“Neoliberalismoa eztabaida nazionalaren zentroan dago”

“Batzuek nahi dute EAJ Maltzagara joatea, baina EAJk bere aliantzak estatuko indar sistemikoekin egiten ditu, PSOE eta PPrekin, eta arlo sindikalean, posible bada, UGT eta CCOOekin”

**Eta gaur egungo Euskal Herrian posible ikusten duzu halako prozesu bat?**

ELA eta LABen konbergentzia? Posible ez, derrigorrezkoa da, eta ez bada ematen ez dago indar metaketarik. Ez dut ulertzen indar harreman berri bat behar dela esatea eta euskal sindikalismoaren potentzialitatea ez baloratzea. Manifestazioak gure militanteekin egoteko baliatzen ditut, eta hauek badakite egoera oso gogorra dela, oso gogorra... baina motibazioa eta ilusioa dute. Nire jubilazioko gauza ederrenetakoa izan da ikustea nola aldatu den egoera azken hamar urteotan eta, hala ere, gure jendeak zer indar eta potentzialitatea duen. Neoliberalismoa nagusi da, bale, bai munduan eta bai hemen, baina ez da garaitezina. ■

**MARCOS**  
*okindegia*

**Benetako  
aitzinako ogia**

© 943 450 966  
Ubarburu pasealekua, 113  
Astigarraga (Gipuzkoa)